



"OLENTZERO ETA MARI DOMINGI" BIENVENIDA HARRERA



zapateria
24
sábado

12:00 **Frontoia**

Ondoren, KALEJIRA TRIKITILARIEKIN herriko kaleetatik zehar

2016 GABON KANTAK * ZORIONAK ETA URTE BERRI**

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duanian
Jesus jaio dala
laisterka etorri da
berri ematera.

Horra, horra, gure Olentzero
pipa hortzetan duela
eserita dago.
Kapoiak ere baitu
arraultzatxuekin
bihar merendatzeko
botila arduakin.

Olentzero buru handia
entendimentuz jantzia
bart arratsean
edan omen du
hamar arruko zahagia!

Ai urde tripa handia,
laralalala laralalala
ai, urde tripa handia,
laralalala laralalala

Horra, horra, gure Olentzero

OLENTZERO BEGI GORRI

Olentzero begi gorri
non harrapatu arrai hori
Oiz barreneko erreketan
bart arratseko hamaiketan.

HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi, begira horri,
gurekin nahi duela Belen-a etorri,
gurekin nahi baduzu Belen-a etorri,
atera beharko duzu gona zahar hori.

Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni (bis)
Hatoz, guazen, adora dezagun,
Belenen jaio dan
haurtxo eder hori (bis)

HATOR HATOR MUTIL ETXERA

Hator, hator mutil etxera
gaztaina ximelak jatera,
Gabon gaua ospatutzeko
aitaren eta amaren ondoan.
Ikusiko duk aita barrezka
amaren poz ta atseginez.

Eragiok, mutil, aurreko danbolin horri.
Gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli txapla, pum!

Gabon gaua pozik igaro daigun.

OLE OLENTZERO

ole! olentzero!	o/le o/len/tze/ro!
ole! olentzero!	o/le o/len/tze/ro!
olentzero, buru handia	o/le! o/len/tze/ro!
entendimentuz jantzia,	o/le! o/len/tze/ro!
bart arratsean	o/le! o/len/tze/ro!
edan omen du	o/le! o/len/tze/ro!
hamar orruko zahagia	o/le! o/len/tze/ro!
olentzero, buru handia	o/le! o/len/tze/ro!
entendimentuz jantzia,	o/le! o/len/tze/ro!
bart arratsean	o/le! o/len/tze/ro!
edan omen du	o/le! o/len/tze/ro!
hamar orruko zahagia	la la la/ra!
horra! horra!	o/len/tze/ro!
horra! horra!	o/le! o/len/tze/ro!
gure olentzero	o/le! o/len/tze/ro!
kapoiak ere baitu	o/len/tze/ro!
arraultzatxoakin	o/le! o/le! o/le! o/le!
horra! horra!	o/len/tze/ro!
horra! horra!	o/le! o/len/tze/ro!
gure olentzero	o/len/tze/ro!
bihar merendatzeko	o/le! o/len/tze/ro!
bo/ti/la ar/do/a/kin.	o/len/tze/ro

AGUR ESKERRIK ASKO

Agur eskerrikasko
agur etxeokak
hurrengo urtearte
hemendik bagoaz.



MAIZTEGI herri eskola



